



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

**EUSKALKIA ETA ESKOLA: ELORRIOKO ESKOLAREN AZTERKETA
BAT**

Egilea: Mainer Bartolomé Urquiola

Zuzendaria: Julian Maia Larretxea

Leioan, 2018ko maiatzaren 28an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. MARKO TEORIKOA	5
1.1 Eskolan bi joera dialektoekiko	5
1.2 Dialektoak eskolan: zer faktoreren arabera?.....	5
1.2.1 Eskolaren zeregina eta funtzioak.....	6
1.2.2 Irakaslearen prestakuntza eta jarrera.....	6
1.2.3 Ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak.....	8
1.2.4 Arrazoi politiko-ideologikoak.....	8
1.2.5 Arrazoi didaktikoak.....	9
1.2.6 Euskararen aldaera edo ereduak	10
1.2.7 Material didaktikoa	14
1.3 Elorrion zer?	14
2. ALDERDI PRAKTIKOA	15
2.1 Tokia eta irakasleak aukeratzea	15
2.2 Itemak	16
2.3 Galdetegia zuzentzeko irizpideak	17
2.5 Hipotesiak.....	18
2.6 Emaitzak	18
3. LAN GUZTIAREN ONDORIOAK	24
4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	25
5. ERANSKINAK.....	26
1. eranskina: Elorrioko euskararen ezaugarriak	26
2. eranskina: galdetegia	30
3. eranskina: aztertu diren ezaugarriak.....	33
4. eranskina: esaldiak zuzentzeko irizpideak	35

Euskalkia eta eskola: Elorrioko eskolaren azterketa bat

Maidier Bartolomé Urkiola

UPV/EHU

Lan honetan eskolan erabili beharko litzatekeen hizkuntza-ereduaren inguruko hausnarketa egin da. Lehenengo atalean, eskolan dialektoekiko dauden bi joera nagusiak aztertu eta baten zein bestearen alde egiteko kontuan hartu beharreko faktoreak aurkeztu dira. Bigarrenean, berriz, azterketa praktikoa burutu da, galdetegi baten bidez, Elorrioko ikastetxe batean euskalkiari ematen zaion onarpena ikertu ahal izateko. Emaitzek adierazi dutenez, ikastetxe honetako irakasleen jarrera ez da bertako dialektoaren aurkakoa izan, analizatutako ezaugarrien %50,3a onartzeko joera egon baita. Hala ere, euskara batuan onartuta dauden hainbat ezaugarri gaitzetsi direnez, uste dugu komenigarria izango litzatekeela gai honekiko irakasleen prestakuntza-maila hobetzea.

Eskola, dialektoak, kontuan hartzeko faktoreak, azterketa praktikoa, euskara batua

En este trabajo se ha hecho una reflexión acerca del modelo lingüístico que debería utilizarse en la escuela. En la primera parte, se han analizado las dos principales tendencias que hay respecto al dialecto en esta institución y se han presentado los factores a tener en cuenta para estar a favor de una u otra. En la segunda, se ha llevado a cabo un examen práctico mediante un cuestionario, para poder estudiar la aceptación que se le da al dialecto en un centro escolar de Elorrio. Según han indicado los resultados, la postura de los profesores de este centro no ha sido contraria al dialecto local, ya que ha habido una inclinación a admitir el 50,3% de las características analizadas. Sin embargo, como se han rechazado varias de las aceptadas en el euskera unificado, creemos que sería conveniente mejorar el nivel de preparación de los profesores con respecto a este tema.

Escuela, dialectos, factores a tener en cuenta, análisis práctico, euskera unificado

In this work an assessment of the linguistic model that should be used in school has been made. In the first part, the two main tendencies there are regarding the dialect in the school have been analysed and the factors that should be taken into account for each one have been presented. In the second part, a practical analysis has been carried out by means of a questionnaire in order to be able to study the acceptance of the dialect in a school centre of Elorrio. According to the results, the teacher's stance has not been opposed to the local dialects, as there has been an inclination towards accepting 50.3% of the characteristics analysed. However, as several features approved in the unified Basque have been rejected, we think that improving the teachers' level of understanding with regard to this topic would be appropriate.

School, dialects, factors to be considered, practical analysis, unified Basque

Sarrera

Euskal Herrian ez ezik, beste herrialde batzuetan ere, eskolan erabiltzeko hizkuntza-eredu egokienaren inguruan jardutean, zalantza ugari agertzen dira oraindik. Horregatik, lan honen bitartez, ikuspuntu pedagogikotik, ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta erabili beharko litzatekeen moldea eta bertan euskal dialektoei ematen zaien onarpena aztertu nahi da, adibide praktiko bat erabiliz.

Horretarako, lehenik eta behin, alderdi teorikoan eskolan dialektoekiko dauden bi joera nagusiak deskribatzen dira eta hainbat autoreren iritziekin batera, joera baten edo bestearen alde egiteko aztertu beharreko faktoreak aurkezten dira. Ondoren, lanaren bigarren atalean, aurrez egindako hausnarketa horretan oinarrituta, azterketa bat egiten da ikastetxe jakin batean, bertan euskal dialektoei ematen zaien onarpena aztertu ahal izateko.

Ikerketa egiteko, Elorrioko ikastolako Lehen Hezkuntzako irakasle batzuek bete beharreko galdetegi bat prestatu da. Bertan, hezitzaileei bosgarren eta seigarren mailako ikasleek idatzitako esaldiak zuzentzeko eskatzen zaie, beren ohiko irizpideen arabera, ondoren, lortutako datuak taulatan bildu eta emaitzak interpretatu ahal izateko. Analisia galdetegi bidez burutzea erabaki da, irakasleak ikasleen lanak zuzentzera ohituta daudenez, egoera arrotza izan dadin saihesteko. Gainera, idatzizkoaren azterketa bakarrik egin nahi izan da, orokorrean, ahozkoarekiko malgutasun handiagoa agertzen delako eta horren onarpena neurtzea konplexuagoa izan daitekeelako.

Lan honen bitartez, beraz, hautatutako ikastetxean jardun idatzizkoan gaitzesten, onartzen eta zalantzan jartzen diren ezaugarriak identifikatu ahal izango ditugu eta aldi berean, bertako irakasleek euskalkiekiko duten jarrera eta prestakuntzaren inguruko hausnarketa egin. Azkenik, jasotako erantzunak alderdi teorikoarekin alderatu eta ondorioak ateratzeko gai izango gara.

1.MARKO TEORIKOA

1.1 Eskolan bi joera dialektoekiko

“Hizkuntza estandardizatuak arautzean eta bideratzean beti gertatu izan dira kontrako jarrerak” (*Jakin* 34 zk., Larringanek aipatua, 1993: 17.or). Hortaz, ez da harritzekoa euskararen kasuan ere prozesua gatazkatsua izan izana. Hainbat urtetan zehar, euskara batuaren aldeko zein kontrako jarrerak agertu izan diren moduan, irakaskuntza-sisteman erabili beharko litzatekeen hizkuntza-eredua ere oso eztabaidatua izan da.

Eztabaida honetan, bi joera nagusi bereiz daitezke. Lehenengoak eskolan hizkuntza-eredu bakarra (liburuetan, literatura klasikoan dagoena) defendatzen du eta ondorioz, hori da irakasleak irakatsi behar duena. Ikuspuntu honen arabera, ikasle bakoitzaren dialektoek ez dute inongo baliorik eskola barruan eta irakaskuntzak horiek ezabatzeraz jotzen du. Bigarren joeraren arabera, ordea, hizkuntza hainbat erabilera dituen errealitate konplexua da. Hortaz, irakaskuntzaren helburua ikaslea ahalik eta erregistro gehienez hornitzea izango litzateke, bizitzako testuinguru guztietan arrakastaz komunika dadin. Hau da, ikaslearen hizkuntza-eredua oinarritzat hartzen da eta hortik abiatuta antolatzen da irakaskuntza prozesua (Maia & Larrea, 2008: 36-37.or).

Lan honetan, ikasleak etxetik dakarren molde hori aintzat hartzearen alde egin da, hau da, aipatutako bigarren eredu horren alde, gure hizkuntzaren erabilera bermatzeko, ezinbestekoa deritzogulako ikasleari aukera ematea erosoago sentitzen den eredu horretan mintzatzeko. Hala ere, inguru bakoitzean erabili beharko litzatekeen hizkuntza-eredua zehaztu ahal izateko, hainbat faktore hartu behar dira kontuan.

1.2 Dialektoak eskolan: zer faktoreren arabera?

Maiak eta Larreak eskolan dialektoak eta gainontzeko aldaerek bere tokia behar duten ala ez erabakitzeke, hainbat faktore aztertzea proposatzen dute: 1) eskolaren zeregina eta funtzioak, 2) irakaslearen prestakuntza eta jarrera, 3) ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak, 4) arrazoi politiko-ideologikoak, 5) arrazoi didaktikoak, 6) euskararen aldaera edo ereduak eta 7) material didaktikoa (Maia & Larrea, 2008: 106-140.or).

Ondoko lerroetan, banaka arituko gara aipatutako faktore bakoitzaren inguruan.

1.2.1 Eskolaren zeregina eta funtzioak

Lehenengo faktore honen arabera, bi motatako eskolak bereizten dira. Alde batetik, ingurunearekin loturarik ez duen eskola egongo litzateke, inguruko jendartearekin eta bestelako ezaugarriekin erlazionatzen ez dena, eta ondorioz, tokian tokiko ezaugarri linguistikoei arreta eskaintzen ez diena. Bigarren ereduak, ordea, ingurua abiapuntu moduan hartu eta hura ezagutzea hartzen du lehen helburu gisa. Hortaz, kontuan hartuko lituzke benetako errealitatea eta inguruko jendarteak erabiltzen duen hizkuntza eredia (Maia & Larrea, 2008: 107-108.or).

Elexpuru (1996), esaterako, bigarren joeraren aldekoa da: “Eskualde askotan, batutik urrun dagoen hizketa bakarrik dakitela hasten dira haurrak eskolan. Ez du inongo logikarik haur horrekin batu hutsean jarduteak. Eskualde horietan herri-euskara erabili beharko litzateke, gehienbat, lehenengo urteetan; eta geroago ere presentzia on bat ziurtatu” (Elexpuru, 1996: 524.or).

Maia (2000) ere horren alde agertzen da: “eskolaren inguruko berbeta aintzat hartzea egokiagoa da eskolako hizkuntza eredia uharte bezala hartzea baino; ahozko tradizioari ere garrantzia eman beharko zaio, idatziaren nagusitasun absolutuaren orde...” (Maia, 2000: 118.or).

1.2.2 Irakaslearen prestakuntza eta jarrera

Bigarren faktoreak irakasleek duten prestakuntza dialektalari eta euskalkiaren aurrean erakusten duten jarrerari egiten dio erreferentzia. Hau da, inguru horretan erabiltzen den eredia kontuan hartzeko, beharrezkoa da, alde batetik, irakasleak erabiliko den dialektoa jakitea, eta bestetik, horren aurkako jarrerarik ez izatea (Maia & Larrea, 2008: 113.or).

Cassany, Sanz eta Lunaren (1994) ustetan, adibidez, irakasleak gai izan behar du, ikasleen jatorrizko hizkuntza-eredua sustatzeaz gain, eredu estandar malguagoa onartzeko:

Es responsabilidad de los educadores —entre otros sectores, obviamente— transmitir un modelo de estándar lo bastante flexible y representativo de todo el ámbito de la comunidad lingüística. Es necesario, por ejemplo, flexibilizar los criterios de corrección con criterios más amplios de adecuación, promover en el habla de los alumnos los rasgos diferenciadores de su origen social y geográfico que sean genuinos y no afecten la comprensión, según el alcance del acto comunicativo, y no presentar ninguna variedad como punto de referencia con la que se comparan las demás, sino otorgarles a todas un mismo rango. (Cassany, Sanz & Luna, 1994: 472.or)

Gai honen inguruan, Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum Dekretuan (236/2015) ere hainbat aipamen egiten dira. Dokumentu honen bigarren zatian, esaterako, *Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia* atalean, ondorengoa azaltzen da:

Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko; gainera, ezinbestekoak dira trebetasun kognitibo-linguistikoak garatzeko eta arlo guztietako ezagutzak eraikitzen laguntzen dute. Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, beharrezkoa da eskolak euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu. (Eusko Jaurlaritza, 2016: 119.or)

Bestalde, *Oinarrizko Diziplina Barneko Konpetentziak* atalean, *Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentziari* dagokionez, honako hau aipatzen da:

Halaber, hizkuntzaren erabilerek agerian uzten dituzte hizkuntzekiko eta horiek erabiltzen dituzten talde sozialekiko jarrerak; horregatik, hizkuntza-ikasgai horien helburua da aniztasun horrekiko jarrera positiboa izan dezaten lortzea. Gainera, konpetentzia hori lantzeko lagungarri da aztertzea nola zabaltzen eta epaitzen diren hizkuntzaren bidez munduari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak. Egokia da aztertze-lan hori egitea hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak ezabatzen laguntzeko. (Eusko Jaurlaritza, 2016: 65.or).

Dekretu horretan, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa aintzat hartzearen alde agertzearekin batera, euskararen erabilera soziala bultzatzearen alde ere egiten da, era horretan, aniztasunarekiko jarrera positiboa garatu eta gure hizkuntzaren erabilera sustatzeko.

1.2.3 Ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak

Ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoei dagokienez, eskola bateko ikasleek zein hizkuntza-jakintza duten jakitea beharrezkoa da, nolako hizkuntza proposamena egin behar den erabaki ahal izateko. Maiaren (2000) aburuz “zenbat eta euskalkidun gehiago izan inguruan, orduan eta arreta xeheagoa eskaini behar zaio tokiko hizkerari edo/eta euskalkiari” (Maia, 2000: 109.or).

Gainera, honako hau ere aipatzen du:

Aunitz eskolatan hizkera molde uniforme murrizta hedatu zen. Hizkera hotza, nolabait esateko, urrutikoa eta oinarrikoa, indar adierazkor txikikoa sarritan. Horrek beharbada ez zukeen hainbesteko garrantzirik inguru sozial erdaldunean, baina kaltegarria da, guztiz, inguru euskalkidunetan. Zergatik? Eskolaren inguruko gizarteak erabiltzen dituen hizkera moldeek ez dutelako balio eskolan, eta ezikusia egiten zaielako (edo gaitzetsi, beste barik). Horrela, hizkuntzaren transmisioan kalte handiak geuretzeko arriskuan jartzen gara inguru euskalkidunean. (Maia, 2000: 103.or)

1.2.4 Arrazoi politiko-ideologikoak

Arrazoi politiko-ideologikoei erreparatuz, esan daiteke, Maia eta Larrearen ustetan bakoitzaren nahia edo ustea islatzen dutela. Hau da, eskolako arduradunen (irakasle, guraso, eskola-erkidegoko eragile, etab.) esku dagoenez erabiliko den euskara eredu hautatzea, erabaki hori hartzerako orduan beren borondatea erabiliko dute (Maia & Larrea, 2008: 116.or).

Bestalde, Maiak (2000), honako hau dio:

Eskualde euskalkidun bizkorrean, bertako aldaera indartzea uste dut faktore garrantzitsua izan daitekeela euskararen beraren sendotzea ekartzeko, baina duda handia dut praktikan inguru euskalki gabeen arrazoi politiko-ideologikoen indar aski izaneren ote duten aldaera azpiestandarren gainean jartzeko hizkuntzaren erabilera handitzeko uste osoa. Horregatik, honelako inguruetan, nire ustez arrazoi didaktikoei eman beharko litzaieke lehentasuna eskolan, eta beraz aldaera estandarragoak hartuko nituzke eskolako hizkuntza ereduaren bizkarrezur. (Maia, 2000: 119.or)

1.2.5 Arrazoi didaktikoak

Eskolan dialektoak onartzearen aldeko arrazoi didaktikoak ulertzeko, beharrezkoa da lehenik eta behin *ikaskuntza esanguratsua* ongi definitzea. Cesar Collek, Jesús Palaciosek eta Álvaro Marchesik (2004) horrela azaltzen dute:

Por *aprendizaje significativo* se entiende aquel en el que la nueva información se relaciona de manera sustantiva, es decir, no arbitraria, no al pie de la letra, con los conocimientos que el alumno ya tiene, produciéndose una transformación tanto en el contenido que se asimila como en lo que el estudiante ya sabía. (Coll, Palacios & Marchesi, 2004: 91.or).

Hau da, ikaslearen aurre-ezagutzek ezinbesteko garrantzia dute, honek hasiera batean zuen edukiaren eraldaketa gertatzeko beharrezkoak baitira. Horregatik, ikasleak informazio berria modu eraginkorrean bereganatu dezan nahi bada, komenigarria da aurrez dituen ezagutza horiek aintzat hartu (erabiltzen duen hizkuntza barne) eta irakaste-ikaste prozesua horien arabera antolatzea. Ideia honen alde agertzen dira, esaterako, Anna Camps eta Juan Luis Goikoetxea.

Anna Campsek (1990) ondorengo adierazten du:

La enseñanza de la lengua ha de basarse en el uso que de ella hace el niño. Hay que partir por lo tanto, de sus capacidades lingüísticas entendidas como la base sobre la cual construir, por enriquecimiento gradual, una competencia lingüística y comunicativa cada vez más amplia, variada y flexible, con el objetivo de que llegue a ser un usuario consciente de la lengua. (Camps, 1990: 37)

Goikoetxeak (2003), bestalde, honako hau:

Eskolako hizkuntza eta etxeokan erreparatzen badugu, etxeok berbeta eskolan landu egin behar dela ondorioztatuko dugu, bestela, eredu erkagarriak jorratu arren, ikasleak nekez jabetuko da ondo dakarren forma hori eskolako moldera aldatzean okerrik egin badu zelan egin duen. [...] Irakaskuntza esanguratsuari jarraiki, hots, dakienetik ez dakienera ibiliz, egin behar ez duena da, etxeokari beste forma bat gainjarri (Goikoetxea, 2003: 214.or)

Hortaz, aditu hauen arabera, ikasleek etxean dialektoa erabiltzen badute eta eskolan ikaskuntza esanguratsua erdietsi nahi bada, hizkera honek eta eskolan nagusitzen denak ez dute oso ezberdinak izan behar.

Hala ere, gerta liteke inguru batzuk euskaradunak ez izatea. Horrelako kasuetan, Maia eta Larrearen (2008) arabera, beharrezkoa da inguru horretan euskalkia erabiltzen duten pertsonen kopurua jakitea, horrela, eskolan erabiliko den hizkuntza-eredua hautatzeko. Euren hitzetan: “eskolaren inguru hurbileko jendartean euskara erabiltzen

ez bada, gure idurikoz desegokia da hizkuntzaren aldaera dialektala lehenetsiko lukeen jokabidea” (Maia & Larrea, 2008: 111-119.or).

1.2.6 Euskararen aldaera edo ereduak

Eskolan zein hizkuntza eredu erabili beharko litzatekeen aztertzen ari garen honetan, beharrezkoa da jakitea zein eredu ditugun aukeran eta zein diren haien mugak, horrela, gaizki ulertuak saihesteko. Bizkaiera zer den eta herriko hizkera zer den, esaterako, sarritan nahasten da. Horregatik, ondoko lerroetan egingo dugu gogoeta hori.

1.2.6.1 Euskara batua

Euskara batua, Maia eta Larrearen (2008, 122.or) arabera, “euskarak orain dela 40 bat urte zuen egoera zatikatua gainditzeko eta hizkera molde bakar eta estandar bat eraikitzeke ahaleginaren ondorioz sortzen eta garatzen den hizkuntza-eredua da”. Edo, beste era batera esanda, euskaldun guztiek elkar ulertzeko beharrezkotzat jotzen den euskara eredu. Hala ere, euskara eredu estandarra sortzeak ez du esan nahi beste hizkuntza molde guztiak baztertzen direnik, baizik eta hiztunen arteko komunikazioa erraztea ahalbidetzen duela:

Denontzat esaten denean, ez da esan nahi hiztun guztiek beti erabili behar duten eredu dela, baizik eta hiztun guztien eskura jartzen den eredu dela, lehenagoko euskalkien arteko desberdintasunek sortzen zituzten komunikazio-zailtasunak gainditzeko, besteak beste. Beraz, modu idealean euskal hiztun guztiok zeregin batzuetan erabil dezakegun eredu da, eta bereziki zeregin formalenetan erabiltzekoa: jendaurreko agerraldietan, entzuleria orotarikoa denean, Euskal Herriko edozein hiztunek ongi ulertzea nahi dugunean.

Denetarako adierazirik, berriz, ez da esan nahi beste hizkuntza-eredu guztiek (euskalkiek, azpieuskalkiek, herriko hizkerek...) ez dutela erabil-esparrurik bererik. Berriz ere, esan nahi da hizkuntza-eredu hori gaur egungo mundu bihurri eta konplexu honetako edozein zereginetan ere erabil daitekeela, haietan erabiltzekoa dela, ez partikularki zeregin batean edo bestean; hizkuntza-eredu horrek «bokazioa» duela zernahi eta nonahi (edozein jardunetan) adierazteko gaitasuna lortzeko eta maila idealean jendearen jardunbide oro azaltzeko eragozpenik ez lukeela izan behar. (Maia eta Larrea, 2008: 19. or).

Euskal dialektoak ugari direla kontuan hartuta, ordea, ez da harritzekoa gure hizkuntzaren estandarizazio prozesuan oztopoak egon izana. Estandarizazio honen aurka agertzen zen, esaterako, Latiegi: “Euskerak –nire ustez-, ez bait du ezertarako batasunik bear. Ez behintzat bizitzeko. Batasunik gabe bizi izan da orain arte. Izkuntza bateratuz inguratua egon oi da beti. Il dira izkuntza aundi, gogor, indartsu, ‘zeatz bateratu’ aiek danak. Guzti aietatik euskera bakarrik bizi da oraindik. ‘bateratu gabeko’ izkuntza!” (Latiegi eta Oñatibia, 1982: 170. or).

Altuberen ustetan, aldiz, euskara estandarraren beharra nabaria zen: “No creo que haya para la supervivencia del euskera otro camino que [...] el de adoptar una de las formas de la lengua familiar para el uso común en toda la nación, extendiendo su uso, primero por el cultivo literario y luego, más paulatinamente, y en cierta medida, como lenguaje hablado (Altube, 1949: 183-184. or).

Txillardegik (1990), ostera, bi hizkuntza-ereduen alde egiten du, baina hauen erabil esparrua bereiziz:

Ez da guztiz okerra esatea, sentimenduak adierazteko dialektoa dela egokia; ideietarako, ostera, estandarra. Zientzi-liburuetan, ekintza ofizialetan, unibertsitatean euskara batua. Lagunen artean, sentimendua nagusi den okasioetan, euskalkia. Nobelagintzan, adibidez, kondaira bera, batuaz; elkarrizketak, herri hizkeraz, eta euskalkiaz, beraz. (Alvarez, J.L, 1990: 60.or)

Hau da, Txillardegik aipatzen duenaren arabera, euskararen eredu bakoitza testuinguru jakin batean erabiltzeko joera dago. Eta egia esan, euskara batua testuinguru formalekin erlazionatzen da normalean, Maiak eta Larreak azaltzen duten moduan: “beste eztabaidagai bat izan da euskara batua zein kodetan edo erregistrotan erabiltzeko ote zen. Gaur egun iritzi nagusia hizkuntza-eredu hori erregistro eta jardunbide formaletan erabiltzekoa dela bereziki. Ez duela, beraz, hizkuntzaren erabilera guztia hartzen barrenean” (Maia & Larrea, 2008: 10.or).

Hala ere, kontuan eduki behar da euskara batua sortzeko, hainbat euskalki hartu direla oinarritzat. Ondorioz, ez da harritzekoa orain dela gutxira arte, euskara estandarraren mugak ezartzerako orduan, arazoak egon izana. Maiak eta Larreak adibidez, honako hau adierazten zuten duela urte batzuk: “zehazki galdetzen badugu honelako edo

halako forma hizkuntza-eredu horren barrenean sartzen den edo ez, duda franko aurkituko dugu segur aski” (Maia & Larrea, 2008: 122.or).

Gaur egun, ordea, Euskaltzaindiaren hiztegiari esker, eta deklinabidez eta aditzaz harturiko erabakien bidez, esan daiteke deklinabidea, aditza eta lexikoa zenbateraino diren ebatziak, eta sintaxia oraindik zehaztu gabe dagoen arren, alor horretan ere forma desberdin tradizioidunak denak onartzeko joera dago, oro har.

1.2.6.2 Euskalki literarioa

Definitu nahi den bigarren hizkuntza-eredua euskalki literarioa da. Maiak eta Larreak horrela azaltzen dute: “alde batetik euskara batua duena eta bestetik herrian herriko hizkeren ugaritasuna. Nolabait ere erdiko lekua hartuko luke eredu horrek. Haren muga linguistikoak literatura-tradizioak markatzen ditu” (Maia & Larrea, 2008: 127.or).

Kasu honetan ere, esan daiteke bizkaieraren muga eta ezaugarri linguistikoak ez daudela guztiz finkatuta, baina badago eredu gisa onartzen den hizkuntza moldea, Labayru Fundazioak darabilena, alegia (ikus: <http://www.bizkaiera.biz>). Hizkuntza-eredu hau, itxuraz, mendebaldeko euskalkitik gertuago dagoenez, herriko hizkeraren eta euskara estandarren artean kokatuko litzateke. Hala ere, euskalki literarioa hasiera batean eremu jakin bateko hiztunengandik hurbilago dagoela ematen duen arren, gerta daiteke eremuren bat euskalkiduna ez izatea, edota euskalki estandar horren ezaugarriak herriko hizkerarekin bat ez etortzea. Horrelako kasuetan, Maia eta Larrearen arabera, hobe da eredu zabalagoari begira jardutea, zenbaitetan herrian herriko hizkerak hurbilago baitute euskara batua euskalki literarioa baino (Maia & Larrea, 2008: 129. or).

Honen inguruko hausnarketa Maiak egin zuen 2000. urtean:

Bat bakarra hautatu beharko litzateke bizkaieraren eremu guztirako? Ez dut nik hala uste: hobe litzateke herriko formak zein tradizioan sartzen diren (edo zeinetatik dauden hurbilen), hartan bideratzea irakaskuntza. Izan ere, eskoletan euskara batuaren ulerkerazabala nahi dudana bezala, bizkaierarena ere hala galdetuko nuke, hartarako arrazoi nagusia bera delarik: eskolak inguruko gizartean ahalik eta egokiena txertatua egon behar duela iruditzen zait. (Maia, 2000: 113.or)

Elexpuru ere ez da euskalki literarioaren oso aldekoa, eta horregatik, hirugarren hizkuntza-eredu bat proposatzen du: ondoren aztertuko den eskualdeko berbeta.

1.2.6.3 Eskualdeko berbeta

Elexpuruk hizkuntza-eredu hau honela definitzen zuen 1996. urtean:

Deba-arrotik begiratuko dut (eta neure ikuspegitik, jakina, han den-denok ez gatozelako bat). Nortasun handiko herriak ditugu gure eskualdean, euskara aldetik diferentzia nabarmenak dituztenak. Ez dugu Deba-arroko euskara baturik nahi; herri (edo berbeta-eskualde) bakoitzak bere euskara mantentzea litzateke helburua. Baina beti ere amankomuna denari indar gehiago emanez, bereizten gaituenari baino.

Gure euskalkia bizkaiera izan arren, bizkaiera batuak ez digu askotzarik balio. Gure eskualdeak harreman gutxi izan du bizkaiera ofizialarekin, lehen gipuzkera eta orain batua direlako gure erreferentzia kultoak.

Berbeta-eskualdea har daiteke agian unitatetzat. Diskutigarria izan daitekeen arren, gurean hauek ikusten ditut: Leintz (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Agian Aramaio), Oñati, Bergara (Antzuola barne), Eibar (agian Soraluze eta Ermua barne), eta Elgoibar. Kontu izan denak euskal hiztun askokoak direla (Leintz-ek 20.000tik gora, eta beste gehienak 10.000tik gora).

Ez dakit hau extrapolatu daitekeen Euskal Herriko beste lekuetara, baina agian, Txorierri, Goiherri, Malda-erreka, Baztan... izan daitezke berbeta-eskualde... (Elexpuru, 1996: 525. or)

Eskualdeko berbeta, hortaz, “literatura-tradizioan oinarritutako euskalki literarioaren (edo euskara batuaren) eta herriko hizkera ahozkoaren artean kokatuko genuke” (Maia eta Larrea, 2008: 131. or).

Maiaren (2000) ustez:

[...] eredu honek beteko luke hobekien eskolaren helburu bikoitza: euskarak zuztarrak ondo sar ditzala inguruko gizartean, eta aldi berean bide laburrena izan dadila euskara batura iristeko; alegia, ikasleek komunikazio gaitasun handiena lor dezatela, bai inguru hurbileko gizarteari dagokionez, eta bai euskaldun guziona arteko lotura indartuz. (Maia, 2000: 114.or).

1.2.6.4 Herrian herriko hizkera

Azkenik, herrian herriko hizkerari dagokionez, esan daiteke herri bakoitzean erabiltzen den euskarari egiten diola erreferentzia. Honek barne hartzen ditu herri horretan erabiltzen den lexikoa (erdarakadatzat jo daitezkeen hitzak barne), morfologia, morfosintaxia, etab.

Maia eta Larrea (2008) hizkuntza-eredu hau eskolan hobestearen aurka agertzen dira, euskararen batasuna trabatzen duelako, nahiz eta egokia izan daitekeen eskolaren

barruan gerta litezkeen egoera informaletarako eta orotariko komunikazio pertsonaletarako:

Alde batetik izanen genituzke ezaugarri batzuk, herri batean (edo hiztun askoren jardunean) agertu arren txartzat jo daitezkeenak (beraz, huts-tako), irizpide gramatikal kontrastatu eta fidagarrien arabera —Euskal Herri guztiko tradizioa kontuan hartuta, oro har—. Horrelakoak izanen lirateke Beran erabiltzen den *erran nau* (Lesakan *erran dit* esaten delarik), edo Oiartzungo *ematen nau*, edo Lekeition esaten den *emon nazu baso bat*. Garbiagoa da oraindik *ikus/ezagutu dizut* bezalako kasua (bizkorki hedatzen ari den erabilera bada ere). Horrelako formak beharbada herriko hizkeraren ezaugarri gisa har daitezke maila batean dialektologiaren ikuspuntu batetik (zenbat eta hedatuagoak, gehiago), baina euskararen tradizio kontrastatuena eta batasuna haustera datozen heinean, eskolak ez ditu forma horiek on-hartu behar, gure ustez (besterik da kontuan hartzea eskola-lanetan). Horrelako ezaugarriak ez lirateke iritsiko, bestela esanda, ereduizko idatzi formalaren mailara, gaur egungo ahozko hizkeran nolabaiteko indarra edo zabalkundea badute ere. (Maia eta Larrea, 2008: 136. or)

1.2.7 Material didaktikoa

Azkenik, material didaktikoaren faktorea aztertuz, esan daiteke eskolarako material gehiena euskara batuan egiten dela. Horregatik, eskolan euskalkia erabili nahi bada, material hori egokitzea izango da bideetako bat. Hala ere, lan hau irakasleari dagokionez, aurretik aipatutako prestakuntzaren beharra dago. Beste bide bat, baliabide didaktikoak euskalkien arabera prestatzea izango litzateke (Maia & Larrea, 2008: 140.or).

Maia eta Larrearen (2008) ustez,

[...] betiere ingurune euskaldunetan aritzeko, lehenbiziko mailetan da beharrena material hori, orduan izaten baititu ikasleak harremanak estuenik hurbileko jendartearekin, eta beraren gaitasunak ere mugatuagoak izaten direlako bestelako eruedetara iragateko (gaur egun hori hein batean aldatua bada ere: edozein umek, nonahikoa delarik ere, badu eskura Euskal Telebistan entzuten den euskara moldea). (Maia & Larrea, 2008: 140.or)

1.3 Elorrion zer?

Elorrio herri euskalkiduna denez, haur gehienak batutik urrun dagoen hizkera erabiliz hasten dira eskolan. Hortaz, ikasleek ikaskuntza esanguratsua erdiesteaz gain, euskararen erabilera bermatzea nahi bada, irakasleek gai izan behar dute hizkuntza eredu hori erabili eta sustatzeko.

Aukeratutako ikastetxea ikastola den heinean, arrazoi politiko-ideologikoez garrantzia handia dute, ikastolaren helburu nagusienetarikoa bat euskararen erabilera bultzatzea baita. Beraz, bertan lan egiten duten irakasle gehienek euskalkiaren aldeko jarrera izan beharko lukete, batez ere, kontuan hartuta gehiengoa Elorrio ingurukoa dela eta hortaz, bertako euskalkian mintzatzeko gai dela.

Hala ere, aipatu behar da bertan erabiltzen den material didaktikoa euskara batuan idatzia dela eta hori oztopo bat izan daitekeela irakaste-ikaste prozesua ikasleak etxetik dakarren hizkuntza eremuan oinarrituz antolatzerako orduan.

2. ALDERDI PRAKTIKOA

Orain arte agertutakoaren arabera, oso aberasgarria da umeen jatorrizko hizkuntza ezaugarriak onartzea, batez ere eskolako lehenengo urteetan, eta hazten doazen heinean ere, presentzia on bat ziurtatzea. Hausnarketa hori oinarritzat hartuta, beraz, praktikan gertatzen dena aztertu nahi izan da, hau da, euskalkiek eskolan duten onarpena neurtzea.

Horretarako, ikastetxe jakin bateko irakasleek erantzuteko galdetegi bat prestatu da, ahozko hizkuntza alde batera utzita, idatzizkoaren analisisa egiteko. Horren bitartez, onartzen eta gaitzesten diren ezaugarriak ezagutu dira, eta ondorioz, bertako irakasleek idatzizkoan bertako dialektoarekiko duten jarrera ikusi da.

2.1 Tokia eta irakasleak aukeratzea

Lan honetan idatzizko jardunean euskalkiari ematen zaion tratamendua aztertu nahi denez, galdetegia pasatzeko eremu euskalkiduna aukeratu dugu, zuzenketak ahalik eta errealean izan daitezkeen. Hau da, Bilboko ikastetxe bat aukeratu gero, esaterako, agian arrotza izan daiteke ikasleek idatzitako esaldiak euskalkia erabilia aurkeztea. Horregatik, Elorrioko kokatutako ikastetxe bat hautatu da, bertako irakasleak, ahozkoan

bada ere, galdetegian agertzen diren ezaugarriak entzutera ohituta daudelako. Eta bestalde, jakina, euskalkidun inguru bateko jarduna aztertu nahi genuelako.

Ikerketan parte hartu duen ikastetxea *Txintxirri* da, Elorrioko herri erdigunean kokatutako D eredua eskaintzen duen Ikastola txikia. Han Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen diren arren, kasu honetan, Lehen Hezkuntza osatzen duten hezitzaileekin bakarrik aritu gara lanean, Haur Hezkuntzan ez direlako idatzizko testuak lantzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleak ohituago daudelako euskara batua erabiltzera idatzizko testuetan (eta beraz, egoera ez litzateke oso errealista izango).

Lehen Hezkuntzan zentratuz, beraz, aipatzekoa da gela bat besterik ez dagoela maila bakoitzeko eta bertan, tutoreaz gain, beste irakasle espezifiko batzuek ere parte hartzen dutela. Galdetegia Lehen Hezkuntza osatzen duten irakasle guztiei pasatu nahi izan zaie, hezitzaile guztien jarrera hartu nahi izan delako kontuan, etapa hori bere osotasunean aztertu ahal izateko. Hala ere, 6 erantzun bakarrik jaso ditugu, lau tutorerenak eta Ingelesa eta Plastikako irakasleenak.

2.2 Itemak

Elorrioko *Txintxirri* Ikastolan, idatzizkoan dialektoa onartzen den ala ez egiaztatzeko, 52 item biltzen dituen galdetegia prestatu da. Horretarako, lehenik eta behin, 76 ezaugarri bereizi dira, Koldo Zuazoren *Euskalkiak: euskararen dialektoak (2008)* eta Julian Maiaren tesian *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan (2000)* oinarrituta.

Ezaugarri horiek hainbat multzotan sailkatu dira: aditzaren morfologia, izenaren morfologia, aditzaren erabilera, morfosintaxia, lexikoko aldaera hutsak eta lexema desberdina duten hitzak (ikus *1. eranskina: Elorrioko euskararen ezaugarriak*).

Ondoren, zerrenda horretatik esanguratsuenak hartu eta galdetegian gehitu dira, hainbat esaldiren barruan (ikus *2. eranskina: galdetegia*). Kontuan hartzekoa da ez direla ezaugarri guztiak hautatu, galdetegia gehiegi luzatu eta irakasleen parte-hartzea

baldintzatuko lukeelako. Hala ere, multzo guztiei eman zaie garrantzia eta horietako bakoitzeko hainbat ezaugarri hartu dira, adibide bakar bat ez baita talde horren adierazle. Lexema desberdina duten hitzen kasuan, esaterako, batzuk bakarrik hautatu ditugu, zerrenda zabalegia delako (ikus 3. *eranskina: aztertu diren ezaugarriak*).

Bestalde, aipatzekoa da Elorrion erabiltzen den euskara islatzen saiatu garen arren, ez dugula herrian herriko edozein ezaugarri hartu, idatzizkoan ez litzatekeelako onartuko. Horren ordez, bizkaiera batua erabili dugu hainbat ezaugarritan. Hau da, Elorrion *desta* esaten bada ere, galdetegian *deusta* idatzi dugu. Gainera, esaldi labur eta argiak idazten ahalegindu gara (ulertu-errazak izan daitezen) eta aztertzen ari garena hain nabarmena ez izateko, bost esaldi betegarri gehitu ditugu.

2.3 Galdetegia zuzentzeko irizpideak

Zuzendu beharreko esaldien aurretik, hainbat argibide gehitu dira, irakasleek jarraitu beharreko pausuak argi izan ditzaten (ikus 4. *eranskina: esaldiak zuzentzeko irizpideak*).

Lehenik eta behin, aipatzekoa da esaldiak hirugarren zikloko ikasleek idatziak izango balira moduan aurkeztu direla. Adin tartea zehaztu nahi izan da, hezitzaile guztiak egoera berean kokatzeko. Hau da, ez da gauza bera esaldiak 6 urteko umeek edo 12koek idatziak izatea, eta ondorioz, lehen zikloko irakasleek jarrera malguagoa ager dezakete zuzenketak egiterako orduan. Hortaz, irakasle bakoitzaren ikuspegia agerian gera dadin, beste edozein aldagaik emaitzan eraginik izan gabe, galdetegian umeen maila zehaztea erabaki da.

Bestalde, aipatzekoa da testuingurua zehazki deskribatu dela: esaldiak non agertu diren, ikasleek zein testu mota idatzi behar zuten, puntuazio markak gehitu direla, etab. Azalpen horiek guztiak egoerari errealismoa emateko erabili dira, era horretan, irakasleek beren ohiko irizpideak erabiltzera bultzatzeko. Gainera, ahal den neurrian, lankideekin kontsultarik ez egiteko eskatu zaie, bakoitzaren jarrerak besteenengan eraginik ez izateko.

2.4 Datu-bilketarako metodologia

Galdetegiak prestatu ondoren, Ikastolara joan eta Lehen Hezkuntzako 10 irakasleei banatu zaizkie, Gradu Amaierako Lanerako ikerketa bat egiten ari garela eta beren laguntza behar dugula esanez. Parte-hartzea boluntarioa izan da eta euskalkien inguruko ezer aipatzea saihestu da, datu hori jakiteak emaitzetan eraginik izan ez dezan.

Jasotako erantzunak hiru multzotan bereizi dira: Ezaugarriaren Onespen Indizea (EOI), Ezaugarriaren Gaitzespen Indizea (EGI) eta Ezaugarriaren Zalantza Indizea (EZI). Guztiak ehunekoetan bildu dira, aurrerago ondorioak ateratzeko.

2.5 Hipotesiak

Irakasleei galdetegia pasatzen hasi aurretik, aurrerago baieztatu edo ezeztatu egingo den hipotesia formulatu da:

Irakasle gehienek Elorrioko euskaran erabiltzen den morfologia, morfosintaxia eta lexikoaren aldaera hutsak gaitzetsi egingo dituzte idatzizkoan, euskara estandarrean beste era batera onartuta daudenean. Esaterako, *dot*, *zertan zoaz* eta *urten* ez dira onartuko, *dut*, *zertara zoaz* eta *irten* identifikatzen direlako euskara batuarekin. Hala ere, badaude onartu egingo diren beste ezaugarri batzuk, euskara batuan hain ohikoak izan ez arren, onetsita daudelako. Hala nola, euskara estandarrean erabiltzen den ohiko formarekin alderatuta, lexema desberdina duten hitzak: *laga*, *berba* etab.

Orokorrean, ordea, gehiengoak idatzizkoan euskalkiaren aurkako jarrera izango duela uste dugu.

2.6 Emaitzak

Jasotako emaitzak ehunekoetara pasatu eta hainbat taulatan bildu ditugu. Ondoren, ezaugarri motarekiko orokorrean dagoen jarrera aztertu ahal izateko, multzo bakoitzeko batez bestekoa atera eta emaitzen inguruko interpretazioa egin da.

ADITZAREN MORFOLOGIA			
ADITZ JOKATUAK			
ADITZ LAGUNTZAILEA	EOI	EGI	EZI
Dot vs dut	0	100	0
Naz vs naiz	33,3	66,7	0
Jata vs zait	16,7	83,3	0
Deusta vs dit	16,7	83,3	0
Batez bestekoa	16,7	83,3	0
ADITZ TRINKOA	EOI	EGI	EZI
Dabil vs ari da	50	50	0
Dinot vs diot	33,3	66,7	0
Dagoz vs daude	16,7	83,3	0
Batez bestekoa	33,3	66,7	0
Aditz jokatuaren batez bestekoa	25	75	0
ADITZ JOKATU GABEAK			
	EOI	EGI	EZI
Kantetan vs kantatzen	33,3	66,7	0
Hotzitu vs hoztu	33,3	66,7	0
Amatau vs amatatu	16,7	83,3	0
Batez bestekoa	27,8	72,2	0
Aditzaren morfologia: batez bestekoa	26,4	73,6	0

Lehenengo taula hau aztertuz, esan daiteke orokorrean ez direla aditzaren morfologiarekin lotutako aldaerak onartu. Alde batetik, irakasleek aditz jokatu zein jokatu gabearekiko duten jarrera antzekoa dela aipatu behar da; eta bestetik, aditz laguntzailea eta trinkoaren artean ere, ez dagoela desberdintasun handirik. Hala ere, azken hau gehiago onartzeko joera dago.

IZENAREN MORFOLOGIA			
	EOI	EGI	EZI
Lagunagaz vs lagunarekin	16,7	83,3	0
Alabea vs alaba	33,3	66,7	0
Goruntz vs gorantz	50	50	0
Norendako vs norentzat/norentzako	0	83,3	16,7
Norbaiteri vs norbaiti	16,7	83,3	0
Edozer vs zernahi	100	0	0
Zeozar vs zerbait	83,3	16,7	0
Zelan vs nola	100	0	0
Horreek vs horiek	0	83,3	16,7
Eurak vs beraiek	83,3	16,7	0
Perkusino vs perkusio	50	50	0
Ibontxu vs Ibontxo	100	0	0
Ederto vs ederki	66,6	16,7	16,7
Batez bestekoa	53,8	42,3	3,9
Morfologia: batez bestekoa	40,1	58	1,9

Bestalde, izenaren morfologiari dagokionez, gehiengoak mendebaldeko euskalkiaren ezaugarriak onartzeko joera daukela nabarmendu behar da. *Edozer*, *zelan* edota *Ibontxu* bezalako ezaugarriak, esaterako, aho batez onetsi dira eta *eurak* eta *zeozar* tankerakoek ere onarpen handia izan dute. *Lagunagaz*, *horreek* edota *norbaiteri* moduko ezaugarriekiko agertu den gaitzespen indizea, ordea, altua izan da, segur aski euskara batuko testuetan agertzen ez direlako. Gainera, nabarmendu behar da *norendako* ere ez dela onartu, euskara batuan onetsita dagoen arren.

Ezaugarri morfologikoak orokorrean aztertuta, beraz, esan daiteke gehiengoak ez duela forma hauek idatzizkoan onartzeko joera.

ADITZAREN ERABILERA			
	EOI	EGI	EZI
Egon da vs zegoen	83,3	16,7	0

Aditzaren erabilerari dagokionez, oso deigarria izan da irakasle batek besterik ez duela *egon da* baztertu. Hau da, eremu horretan egunerokotasunean asko entzuten den adierazpena denez, gehiengo hori erabiltzera ohituta dago eta beraz, ez zaio arraroa egiten (izan daiteke, gainera, beste inguru batzuetan ematen zaion erabilera desberdina dela ez jakitea).

MORFOSINTAXIA			
	EOI	EGI	EZI
Badakit etorriko dena vs dela	0	83,3	16,7
Horri gizonari vs gizon horri	0	83,3	16,7
Jakitearren vs jakiteagatik	66,6	16,7	16,7
Etxera noa ze... vs etxera noa ...-gatik/-lako	0	100	0
Zertan zoaz vs zertara zoaz	0	100	0
Batez bestekoa	13,3	76,7	10

Aurreko taulari erreparatuta, argi dago ezaugarri morfosintaktikoak, oro har, ez direla onartzen. *Zertan zoaz* edota *ez dut nahi ze...* bezalako esamoldeak, adibidez, galdetegia erantzun duten guztiek gaitzetsi dituzte, eta gainerako ezaugarriak ere, orokorrean alde batera utzi dira. Bestalde, aipagarria da *jakitearren* euskara batuan ere onartu eta gehiengoak onetsi duen arren, ezaugarria txartzat hartu duten irakasleak ere egon direla.

Gainera, gertakizun deigarri bat aipatu behar da: galdetegian, euskara batuan (eta hainbat euskalkitan) onesten den ezaugarri bat sartu da, baina bi irakaslek ez dute onartu. Hau da, *umeek parkean jolasten duten bitartean* ontzat hartu beharrean, mendebaldean ematen zaion erabilerarengatik aldatu dute (*umeak parkean jolasten duten bitartean*). Beraz, argi geratu da bertan pluralean *nor* eta *nork* kasuen formak ez direla bereizten.

LEXIKOA			
ALDAERA HUTSAK	EOI	EGI	EZI
Urten vs irten	33,3	66,7	0
Barri vs berri	33,3	66,7	0
Edur vs elur	16,67	66,7	16,67
Andra bat vs andre bat	83,3	16,7	0
Zeintzuk vs zein	100	0	0
Batez bestekoa	53,3	43,4	3,3
LEXEMA DESBERDINA DUTEN HITZAK	EOI	EGI	EZI
Amatatu vs itzali	33,3	66,7	0
Berba vs hitz	83,3	16,7	0
Gura vs nahi	33,3	50	16,7
Jausi vs erori	100	0	0
Bider vs aldiz	100	0	0
Martitzen vs astearte	33,3	66,7	0
Baino vs baizik	50	50	0
Barik vs gabe	100	0	0
Artazi vs guraize	100	0	0
Astiro vs poliki	83,3	16,7	0
Larregi vs gehiegi	83,3	16,7	0
Atzamar vs hatz	100	0	0
Izeko vs izeba	100	0	0
Jaramon vs kasu	83,3	16,7	0
Laba(i)n egin vs irrist egin	83,3	16,7	0
Makatz vs udare	66,7	0	33,3
Osatu vs sendatu	100	0	0
Ostantzean vs bestela	33,3	66,7	0
Batez bestekoa	75,9	21,3	2,8
Lexikoa: batez bestekoa	64,6	32,3	3,1

Guztira	50,3	45,9	3,8
----------------	-------------	-------------	------------

Lexikoak, orokorrean, onarpen handia izan du, agertzen diren ezaugarri gehienak euskara batuan ere onartuta baitaude.

Aldaera hutsen artean, erdiak baino gehiagok onartzeko joera erakutsi du, eta gainerakoen artean, gutxi batzuk zalantzatsu agertu dira eta besteek ezaugarria gaitzetsi dute. *Zeintzuk* kasua aipagarria da, izan ere, ezaugarria aho batez onartu da.

Bestalde, lexema desberdina duten hitzei dagokienez, Ezaugarria Onartzeko Indizea handia izan da eta ezaugarri gutxi batzuk besterik ez ditu gehiengoak gaitzetsi, hala nola, *amatatu*, *gura*, *martitzen* edota *ost(er)antzean*. Hala ere, aipatzekoa da horrelako hitzak gaur egun *Euskaltzaindiaren Hiztegia* delakoan onartuta daudela, eta beraz, eskubide guztia izango luketela eskolan erabiliak izateko. *Baino vs baizik* kasuan, berriz, bi joerak orekatuta egon dira, erdiak baten alde eta beste erdiak bestearen alde egin baitu.

2.7 Ondorioak

Ondorioei zuzenean erreparatu aurretik, nabarmendu behar da erabilitako item eta irakasle kopurua mugatua izan denez, ezin dela konklusio zehatzik atera, ikastetxean oro har dagoen jarrera identifikatzeaz haratago. Hala ere, lortutako emaitzak aztertuta, esan daiteke, orokorrean euskalkiaren ezaugarriak uste baino gehiago onartu direla idatzizkoan, izan ere, itemen %50,3a hartu da ontzat. Onarpen handiena izan duten atalak aditzaren erabilera (%83,3ko onarpenarekin) eta lexikoa izan dira (ezaugarrien %64,6a onartu da) eta gutxien onetsi diren ezaugarrien artean, morfosintaxia (%13,3ko onarpenarekin) eta aditzaren morfologia (%26,4) bereiz daitezke.

Formulatutako hipotesian adierazi den moduan, ikerketa egiten hasi aurretik, irakasleek ezaugarri morfologiko, morfosintaktiko eta lexikoko aldaera hutsak gaitzetsi egingo zituztela uste zen. Praktikan, ordea, lehenengo bi ezaugarriekin asmatu dugun arren (irakasleek %58ko gaitzespena erakutsi dute ezaugarri morfologikoekiko eta %76,7ekoa ezaugarri morfosintaktikoekiko), lexikoko aldaera hutsei dagokienez, emaitzak oso bestelakoak izan dira, ezaugarrien %53,3a onartu baita, nahiz eta euskara batuaren hiztegian agertu ez.

Lexikoaren atalean, lexema desberdina duten hitzei erreparatuta, bestalde, esan daiteke gure aurreikuspena zuzena izan dela, Ezaugarria Onartzeko Indizea %75,9koa izan delako. Hauen artean, gainera, irakasle guztiek onartutako hainbat hitz daude, hala nola, *jausi, bider, barik, osatu*, eta abar. Hala ere, aipatzekoa da euskara batuan onartuta dauden zenbait hitzekiko (*esaterako, amatatu, gura* edo *martitzen*) ez dela irakasle guztien adostasunik egon, hainbatek horiek gaitzesteko joera izan duelako.

3. LAN GUZTIAREN ONDORIOAK

Lan honen lehenengo atalean adierazi denaren arabera, Elorrio bezalako herri bateko eskoletan, aberasgarriagoa da tokiko hizkerari arreta jartzea, dialekto horiek ezabatzearen alde agertzea baino. Horregatik, bigarren atalean praktikan gertatzen dena aztertu nahi izan dugu, aukeratutako ikastetxeko irakasleek bertan erabiltzen den euskalkiarekiko duten jarrera zein den ikusi ahal izateko.

Orokorrean, galdetegia pasatu ondoren lortu diren emaitzak espero baino positiboagoak izan diren arren, argi geratu da irakasleek mendebaldeko euskalkian ohikoagoak diren zenbait ezaugarri gaitzesteko joera dutela, Euskaltzaindiaren hiztegian onartuta badaude ere. Izan liteke horrelakoak irakasleen ez-jakintasunagatik gertatu izana eta aintzat hartuz ikastetxe honen ingurunea euskalkiduna dela, uste dugu komenigarria litzatekeela irakasleen prestakuntza hobetzeko neurriak hartzea.

Hala ere, nabarmendu behar da ikastetxeko langileen jarrera, oro har, ez dela bertako dialektoaren aurkakoa izan, herrian erabiltzen diren beste hainbat forma onesteko joera egon delako. Horrela, beraz, ikasleen hizkeraren zenbait ezaugarritik abiatuz, hauen izaera mantentzeko eta euskararen erabilera soziala sustatzearen alde egin da.

Hortaz, esan daiteke ikastetxe honetan euskalkiek badutela beren lekua, baina irakasleen ezagutza-maila gehiago hobetu daitekeela, irakasleek eskolan ikasten dutenaren eta bizitza errearen artean lotura dagoela ikus dezaten.

4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Altube, S. (1949): La unificación del Euskera Literario, *E-J, III, 2-3 zb.*, 183-184.or
- Alvarez, J.L. (1990): *Soziolinguistika egunak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Camps, A. (1990). Los objetivos lingüísticos de la educación. In M. Siguan, *Lengua del alumno, lengua de la escuela* (37 or.). Bartzelona: Graó.
- Cassany, D., Luna, M., & Sanz, G. (1994). *Enseñar lengua*. Bartzelona: Graó.
- Coll, C., Marchesi, A., & Palacios, J. (2004): *Desarrollo psicológico y educación. 2. Psicología de la educación escolar*. Madrid: Alianza Editorial.
- Elxepuru, J. M. (1996). Herri-euskararen eremua. *Euskera-XLI*.
- Eusko Jaurlaritza. (2016). *Oinarrizko Hezkuntzako curriculum. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*. EHAA.
- Goikoetxea, J. L. (2003). *Euskalkia hezkuntzan. Dakigunetik, ez dakigunera euskal diglosia irazian*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Labayru Ikastegia; Bizkaiko Foru Aldundia (d.g.). *Bizkaieraren ataria*. URL: <http://www.bizkaiera.biz/>
- Larringan, L. M. (1993). Euskara batua eta euskalkiak. Aintzat hartu beharreko praktikak. *Jakin* 76, 17.
- Latiegi, B. eta Oñatibia, D. (1982): *Euskaltzaindiari epaiketa*. Donostia: Lorea Artes Graficas.
- Maia, J. (2000). *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*. EHU doktore tesia. URL: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Julian_Maia_TESI.pdf
- Maia, J., & Larrea, K. (2008). *Euskara batua eta euskalkiak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: EHU.
- Zuazo, K. (2008): *Euskalkiak. Euskararen Dialektoak*. Donostia: Elkar